



LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO

**AÑO  
2.018  
URTEA**

# **7. ORDENANTZA FISKALA**

## **ORDENANZA FISCAL Nº 7**

**UDALAK DOMINIO PUBLIKOA  
OKUPATZEAGATIKO TASAK  
*TASAS POR LA OCUPACIÓN DEL  
DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL***



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO



**7. ODENANTZA UDAL JABARI PUBLIKOAREN  
ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU  
BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN  
ERREGULATZAILEA**

**ORDENANZA Nº7 REGULADORA DE TASAS  
POR LA UTILIZACION PRIVATIVA O EL  
APROVE-CHAMIENTO ESPECIAL DEL  
DOMINIO PUBLICO LOCAL**

**ARGIBIDEA**

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK	3
1. Artikulua.- .	3
2. Artikulua.- .	3
II. KAPITULUA: ZERGA-EGITATEA	3
3. Artikulua.- .	3
III. KAPITULUA: SUBJEKTU PASIBOA	4
4. Artikulua.- .	4
IV. KAPITULUA: SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK	5
5. Artikulua.- .	5
V. KAPITULUA: OINARRI EZARGARRIA	5
6. Artikulua.- .	5
VI. KAPITULUA: KUOTA	5
7. Artikulua.- .	5
VII. KAPITULUA: SORTZAPENA ETA ZERGALDIA	6
8. Artikulua.- .	6
VIII. KAPITULUA: LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA	7
9. Artikulua.- .	7
IX. KAPITULUA: TASEN KUDEAKETA	8
10. Artikulua.- .	8
11. Artikulua.- .	9
12. Artikulua.- .	9
13. Artikulua.- .	9
14. Artikulua.- .	9
15. Artikulua.- .	10
AMAIERAKO XEDAPENA	11
I. ERANSKINA	11
20.Tasa.- LUR-ZORUAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA IBILGAILUAK SARTZEKO EDO APARKATZEKO.	12
21.Tasa.- KALEZ KALEKO MERKATUA	16
22.Tasa.- LURZORUARI ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EMATEA MAHAI ETA AULKIEKIN.	17

**INDICE**

CAPÍTULO I: DISPOSICIONES GENERALES
Artículo 1.- .
Artículo 2.- .
CAPÍTULO II: HECHO IMPONIBLE
Artículo 3.- .
CAPÍTULO III : SUJETO PASIVO
Artículo 4.- .
CAPÍTULO IV: EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES
Artículo 5.- .
CAPÍTULO V: BASE IMPONIBLE
Artículo 6.- .
CAPÍTULO VI: CUOTA
Artículo 7.- .
CAPÍTULO VII: DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO
Artículo 8.- .
CAPÍTULO VIII: LIQUIDACIÓN E INGRESO
Artículo 9.- .
CAPÍTULO IX: GESTION DE LAS TASAS
Artículo 10.- .
Artículo 11.- .
Artículo 12.- .
Artículo 13.- .
Artículo 14.- .
Artículo 15.- .
DISPOSICIÓN FINAL
ANEXO I
20.Tasa.- UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO PARA ACCESO O APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS.
21.Tasa.- MERCADO AMBULANTE
22.Tasa.- UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO CON MESAS Y SILLAS.



24.Tasa.- UDAL-BIDE PUBLIKOEN  
LURZORU, LURPE EDO HEGALPEAREN  
ERABILPEN PRIBATIBOA EDO  
PROBETXAMENDU BEREZIA, HORNIDURA-  
ZERBITZUEN ENPRESA USTIATZAILEEN  
ALDE 19

25.Tasa.- LUR-ZORUAREN ERABILERA  
PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU  
BEREZIA SALTOKIEKIN, PRODUKTUAK  
SALGAI DITUZTEN KALE-POSTUEKIN,  
ATRAKZIOEKIN, APARATU  
AUTOMATIKOEKIN ETA ANTZEKO BESTE  
BATZUEKIN 21

24.Tasa.- UTILIZACIÓN PRIVATIVA O  
APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL  
SUELO, SUBSUELO O VUELO DE LAS VÍAS  
PÚBLICAS MUNICIPALES, EN FAVOR DE  
EMPRESAS EXPLOTADORAS DE  
SERVICIOS DE SUMINISTRO

25.Tasa.- UTILIZACIÓN PRIVATIVA O  
APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL  
SUELO CON PUESTOS, PUESTOS  
AMBULANTES CON PRODUCTOS EN  
VENTA, ATRACCIONES, APARATOS  
AUTOMÁTICOS, Y OTROS ANALOGOS.



**7. ODENANTZA UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ERREGULATZAILEA**

**ORDENANZA Nº7 REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACION PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PUBLICO LOCAL**

**I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

**1. Artikulua.- .**

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

**2. Artikulua.- .**

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

**II. KAPITULUA: ZERGA-EGITATEA**

**3. Artikulua.- .**

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren probetxamendu bereziak eratzten du zergagaia.

2.- Baldin eta Tasa bakoitzaren aplikatzeko arauetan bestelakorik adierazten ez bada, udalerraren barnean Tasa honek kargaturiko jarduerak gauzatzen diren lokal edo establezimenduen egongunea haztatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten dira, ondoren zerrendatzen diren kategorien hurrenkeran:

**CAPÍTULO I: DISPOSICIONES GENERALES**

**ART. Artículo 1.- .**

Esta Entidad Local, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local especificados en el Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

**ART. Artículo 2.- .**

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial de la Entidad Local.

**CAPÍTULO II: HECHO IMPONIBLE**

**ART. Artículo 3.- .**

1.- Constituye el hecho imponible la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

2.- Salvo que en las normas de aplicación de cada Tasa se disponga otra cosa, a los efectos de ponderar la situación física de los locales o establecimientos donde se ejerzan las actividades gravadas por esta Tasa, las calles, plazas o barrios del término municipal se clasifican por el orden de categorías que se relacionan a continuación:



Kategoria	<i>Kaleak, plazak edo auzoak</i>	
	<i>Grupo General</i>	
<b>LEHENENGOA</b> <i>PRIMERA</i>	Geltoki kalea	nº 2 al 16 nº 1 al 23
	Hipodromo Etorbidea	nº 2 al 8 nº 1 al 3
	Iñigo de Loiola kalea	nº 2 al 8 nº 1 al 7
	Nagusi kalea	nº 2 al 18 nº 1 al 21
	Pablo Mutiozabal kalea	nº 2 al 6 nº 1 al 9
	Pintore kalea	nº 2 nº 1 al 5
	Sagardotegi kalea	nº 2 al 6 nº 1 al 3
	Uistin kalea	nº 1 al 11
	<b>BIGARRENA</b> <i>SEGUNDA</i>	<b>Gainerako bideak</b> <i>Resto de las Vías</i>

### III. KAPITULUA: SUBJEKTU PASIBOA

#### **4. Artikulua.- .**

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

### III. CAPÍTULO III : SUJETO PASIVO

#### **ART. Artículo 4.- .**

1.- Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público local en beneficio particular, conforme a alguno de los supuestos previstos en el artículo 20.2 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.



2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

#### IV. KAPITULUA: SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

##### **5. Artikulua.-**

Salbuespenak edo onura fiskalak Eranskinean edo aplikatzeko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera eraukiko dira.

#### V. KAPITULUA: OINARRI EZARGARRIA

##### **6. Artikulua.-**

Oinarri ezargarrria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

#### VI. KAPITULUA: KUOTA

##### **7. Artikulua.-**

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Ondorio hauetarako, kaleak eta, orohar, Udalaren lekuak Eranskinean ere adierazitako era berean ilkatzten dira.

2.- En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos o carruajes a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

3.- El Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

#### CAPÍTULO IV: EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

##### **Artículo 5.-**

La concesión de exenciones o beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en el Anexo y en las disposiciones generales de aplicación.

#### CAPÍTULO V: BASE IMPONIBLE

##### **Artículo 6.-**

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, en los términos contenidos en el Anexo.

#### CAPÍTULO VI: CUOTA

##### **Artículo 7.-**

1.- La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

2.- A estos efectos, las calles y, en general, lugares del Municipio, se clasifican del modo que asimismo se expresa en el Anexo.

3.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztatik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

## VII. KAPITULUA: SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

### **8. Artikulua.-**

1.- Udalaren jauntza publikoaren erabilera esklusiboagatik edo probetxatze bereziagatik ezartzen diren tasak kobratzeko eskubidea sortuko da, zergaia nolakoa den arabera, erabilera esklusiboa edo probetxatze berezia eraukitzen denean, edo erabilera esklusiboa edo probetxatze berezia hasten denean, noiz ere eskatzen ahalko baita zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea, edota, bestela, jardunari edo espedienteari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten denean, noiz ere jarduna ez baita gauzatuko edo espedientea ez baita izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialagatik hura kobratzeko eskubideak aldizkakoa izan behar duenean, eskubide hori sortuko da dagozkion tarifetan adierazitako bitarte bakoitzaren lehenengo egunean.

Zerga-aldiak eguna, hilabetea, hiru-hila, sei-hila edo urte osoa hartuko du, dagozkion tarifen arabera. Lizentzia hasten edo jarduera ekonomikoa uzten denean, ordea, zerga-aldia zertzelada horretara egokituko da, Eranskinen ezarritakoari jarraituz.

3.- Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el(a) beneficiari@, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligad@ al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, la Entidad Local será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

La Entidad Local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

## CAPÍTULO VII: DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO

### **Artículo 8.-**

1.- Las tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local se devengarán, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se conceda la utilización privativa o el aprovechamiento especial, o se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, pudiendo exigirse el depósito previo de su importe total o parcial, o cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

2.- Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, el mismo tendrá lugar el primer día de cada uno de los períodos señalados en las tarifas respectivas.

El período impositivo comprenderá el día, mes, trimestre, semestre o año natural según las tarifas respectivas, salvo en los supuestos de inicio de la licencia o cese de la actividad económica, en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia, en los términos establecidos en el Anexo.





3.- Noiz eta, subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, jauntza publikoa erabiltzeko edo probetxatzeko eskubidea ezin gauzatu baita bost egunetik gorako epean, dagokion zenbatekoa hainbanaturik itzuliko zaio.

Edozein kasutan ere, Udalak beretzat gordetzen du okupaturiko edo baimena emaniko gune jakinaren barruan jarduteko eskubidea, betiere obrak egiteko behar badu, edo egoki deritzon beste zeinahi arrazoiengatik.

### VIII. KAPITULUA: LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

#### **9. Artikulua.- .**

1.- Tokiko Erakundeak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta dirutan ordaindu beharko da, Eranskinak karga bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

2. - Tasak kobratzeko eskubidea aldizka sortzen denean, behin haien erroldan edo matrikulan alta emateari dagokion likidazioa jakinarazitakoan, hurrengo kuotak multzoan jakinaraziko diren erreziboen bidez igorriko dira.

3. - Tasen ordainketa dagokien lizentzia jaso aurretik egingo da, autolikidazioaren bitartez, non eta tasa bakoitza aplikatzeko arauetako bestelakorik ezartzen ez den.

4. - Tasa bakoitzaren zenbatekoa sartzeko epeak, haietako bakoitza aplikatzeko arauetan seinatuak dira, eta, haien ezean, honako hauek:

- a) Tasaren urteko kuoten ordainketa urriaren 1etik azaroaren 15era edo hurrengo egun baliodunera bitartean egingo da.
- b) Tasaren hiruhilabeteko kuoten ordainketa ondoko epeotan, edo hurrengo egun baliodunera bitartean, egingo da.

3.- Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se pueda ejercer por un espacio superior a cinco días naturales, procederá por prorrateo la devolución del importe correspondiente.

En todo caso, el Ayuntamiento se reserva su derecho a poder actuar dentro del espacio concreto ocupado o autorizado siempre que lo precise para la realización de obras o por cualquier otra causa que estime conveniente.

### II CAPÍTULO VIII: LIQUIDACIÓN E INGRESO

#### ART **Artículo 9.- .**

1.- Por la Entidad Local se practicará una liquidación por cada concepto, que deberá ser ingresada en metálico conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

2. - Cuando las tasas se devenguen periódicamente, una vez notificada la liquidación correspondiente al alta en el respectivo padrón o matrícula, las sucesivas cuotas se girarán mediante recibos de notificación colectiva.

3.- El pago de las Tasas se realizará previamente a la retirada de la correspondiente licencia en régimen de autoliquidación, salvo que en las normas de aplicación de cada Tasa se estipule lo contrario.

4.- Los plazos de ingreso de cada tasa son los señalados en sus correspondientes normas de aplicación, y en su defecto los siguientes:

- a) El pago de las cuotas anuales se realizará del 1 de octubre al 15 de noviembre o inmediato hábil posterior.
- b) El pago de las cuotas trimestrales se realizará en los siguientes plazos, o inmediato hábil posterior.



1. Hiruhilabetea borondatezko epea <i>1º Trimestre período voluntario</i>	Urtarrilaren 1etik 25era <i>Desde el 01 al 25 de Enero</i>
2. Hiruhilabetea borondatezko epea <i>2º Trimestre período voluntario</i>	Martxoaren 1etik 15era <i>Desde el 01 al 15 de Marzo</i>
3. Hiruhilabetea borondatezko epea: <i>3º Trimestre período voluntario</i>	Ekainaren 1etik 15era <i>Desde el 01 al 15 de Junio</i>
4. Hiruhilabetea borondatezko epea <i>4º Trimestre período voluntario</i>	Irailaren 1etik 15era <i>Desde el 01 al 15 de Setiembre</i>

### IX. KAPITULUA: TASEN KUDEAKETA

#### **10. Artikulua.-**

1. - Gauzak edo elementuak instalatzeko, orobat hasiera batean onetsitakoak aldatzeko, berritzeko, zabaltzeko edo murrizteko ere, beharrezkoa izango da, Udalaren lizentziaz gain, Ordenantza honetan araututako tasak pagatzea.

2. - Lizentzia eskuratzeko interesaturik daudenek, aldez aurretik, Erregistro Orokorrean eskabidea aurkeztu beharko dute, zer nolako erabilera eta probetxatzea gauzatuko duten zehaztuz. Horrekin batera, dagokien aitortpen-likidazioa eta ateratzen den tasaren zenbateko sartu izanaren justifikagiria aurkeztu beharko dute.

3.- Elementu bakoitzaren okupazioa konputatzeko, zabaleran beti gutxienez 2 metro esleituko dira, beti ere Eranskinean karga bakoitzarentzat datozen arau partikularrek ezarritakoaren kontra ez badoaz.

4. - Baldin eta okupatzeko baimena urte betekoa bada, epez luzatutzat joko da harik eta Alkateak iraungitzea erabakitzen duen arte edo baja emateko eskabidea aurkezten den arte.

Hala ere, lizentzia oro interes eta erabilera publikoaren baldintzapean geldituko da, halako eran non, udaleko administrazioak jauntza publikoko gunea erabili beharra badu, lizentzia besterik gabe baliogabeturik geldituko baita. Kasu horretan, kuota 8.3. artikuluan ezarritako eran murriztua geldituko da.

### II CAPÍTULO IX: GESTION DE LAS TASAS

#### **ART. Artículo 10.-**

1. - Para la instalación de los efectos o elementos, así como para la modificación, reforma, ampliación o reducción de los inicialmente concedidos se requiere además de licencia municipal el pago de las tasas reguladas en esta Ordenanza.

2. - Las personas interesadas en la obtención de una licencia presentará previamente en el Registro General la oportuna solicitud, con especificación del tipo de utilización o aprovechamiento a realizar; debiendo acompañar la correspondiente declaración-liquidación y justificante de ingreso de la tasa resultante.

3. - A fin de computar la ocupación de cada elemento, se adjudicará siempre un mínimo de 2 metros de ancho, sin perjuicio de lo que dispongan las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

4.- En los supuestos de autorización de ocupación con carácter anual, se entenderá prorrogada mientras no se acuerde su caducidad por la Alcaldía o se presente solicitud de baja.

No obstante, toda licencia quedará condicionada al interés y uso público, de manera que si fuera precisa la utilización del espacio de dominio público por la administración municipal la licencia quedará automáticamente resuelta, en cuyo caso la cuota se verá reducida en la forma establecida en el artículo 8.3.

### 11. Artikulua.- .

Behin gauzak edo elementuak erretiratu ondoren, interesatuek nahitaez aurkeztu beharko dute erabileran edo probetxatzean baja ematearen deklarazioa Udaleko Administrazioan, eta, hark onartzen badu, aurkeztua izan den zerga-aldiaren hurrengotik aurrera izango du eragina, eta ordu arateko tasak aplikatuko dira.

### 12. Artikulua.- .

Probetxuen edo instalazioen titularitatea aldatzeko, nolana ere, Udaleko Administrazioaren alde aurreko baimena beharko da. Hori lortzeko, lizentziaren titularrak idatziz eskatu beharko du, aipatuaz norberaren datuak, titular berriaren bizilekua, eta Ordenantza honen ondorioetarako beharrezkoak diren datu guztiak

Udalaren baimen hori gabe egindako aldatetarako, emandako lizentzia baliogabetzea ekarriko dute, eta, beraz, beste baimen bat eskatu beharko da.

### 13. Artikulua.- .

Udal-jabari publikoa okupatzea baimenduko dion lizentzia eskuratu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da Udal Hazienda honekiko zordun ez izatea bere baliabide lokalak osatzen dituzten kontzeptuetariko ezeinetan.

### 14. Artikulua.- .

Ordenantza honetako epigrafeetan jasota ez dauden eta nolabaiteko maiztasunez gertatzen ez diren edo ezin diren udal-jabari publikoaren noizbehinkako probetxamenduetarako, Alkateak une bakoitzean eta kasu bakoitzerako aipatu probetxamenduaren kostuan oinarrituz egokitzat jotzen duen tasa finkatu ahal izango du, dagokion teknikariaren eta Kontuhartzailearen txostenak ikusi ondoren.

Hazienda Batzordeari akordio horren berri emango zaio, jakin dezan eta dagozkion eraginetarako.

### ART. Artículo 11.- .

Una vez retirados los efectos o elementos l@s interesad@s están obligad@s a presentar la oportuna declaración de baja en la utilización o aprovechamiento en la Administración Municipal, la cual, en caso de conformidad, tendrá efectos a partir del período impositivo siguiente a aquel en que fue presentada, aplicándose las tasas hasta dicho momento.

### ART. Artículo 12.- .

El cambio de titularidad de los aprovechamientos o instalaciones requerirá en todo caso la previa autorización de la Administración Municipal. Para ello el(a) titular de licencia deberá solicitarlo por escrito mencionando los datos personales, el domicilio del(a) nuev@ titular y cuantos datos sean necesarios a efectos de esta Ordenanza.

Los cambios producidos sin la consiguiente autorización municipal producirá la revocación de la licencia otorgada, debiéndose solicitar una nueva autorización.

### ART. Artículo 13.- .

Será condición inexcusable para poder obtener licencia que le autorice la ocupación del dominio público municipal, no ser deudor(a) de esta Hacienda Municipal por ningún los conceptos que integran sus recursos locales.

### ART. Artículo 14.- .

Para aquellos aprovechamientos del dominio público municipal de carácter puntual y concreto, que no se produzcan, o se puedan producir, con relativa periodicidad, y que no se encuentren recogidos en los epígrafes de esta Ordenanza, el/la Alcalde(sa) podrá determinar en cada momento y para cada caso la tasa que estime más oportuno en base al costo del citado aprovechamiento, visto el informe del(a) técnico respectiv@ y del(a) Interventor(a) de fondos.

Del citado acuerdo se dará cuenta en la Comisión de Hacienda para su conocimiento y efectos.

## 15. Artikulua.- .

1. - Tributu-arauen urratze arrunta izango dira ondoren zehazten diren kasuak, eta era honetarako zigortuko dira:

A) Nork ere, okupatzeko lizentzia izanik, lizentzia horretan mugaturiko gune publikoa okupatzen baitu horretakotz premia den autoliquidazioa aurkeztu eta pagatu gabe, edota egindako pagamenduak esku ematen diona baino gune handiagoa okupatuz, dagokion tasa ordaintzera obligaturik geratzeaz gain, honela zigortua izango da:

- a) Lehenbiziko aldian, bete beharrekoak bete ez izanaz ohartaraziko zaio.
- b) Bigarren aldian, 30 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako.
- c) Hirugarren aldian, 60 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta baimena etenda geratuko da 6 hilabeteko epean.
- d) Laugarren aldian, 150 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta baimena etenda geratuko da urte beteko epean.
- e) Bosgarren aldian eta hurrengotan, 300 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta lizentzia baliogabetzea.

B) Nork ere gune publikoa okupatzen baitu horretakotz premia den autoliquidazioa aurkeztu eta pagatu gabe, larriagotzen duelarik gune hori okupatzeko lizentziarik ez duelako, nahiz eskatu duen, ondoko zigor hau jasoko du:

- a) Lehenbiziko aldian, 60 euro.
- b) Bigarren aldian, 150 euro.
- c) Hirugarren aldian eta hurrengoetan, 300 euro.

## ART. Artículo 15.- .

1. - Son infracciones tributarias de carácter simple los supuestos que a continuación se detallan y serán sancionados de la siguiente manera:

A) Quien poseyendo licencia para la ocupación, ocupare el espacio público delimitado en la licencia sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, o bien ocupando un espacio superior al que da derecho el abono realizado, independientemente de quedar obligado al pago de la tasa respectiva, será sancionado de la siguiente manera:

- a) La primera vez será apercibido de su incumplimiento.
- b) La segunda vez será sancionado con 30 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas.
- c) La tercera vez será sancionado con 60 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas, quedando suspendida la autorización por espacio de 6 meses naturales.
- d) La cuarta vez será sancionado(a) con 150 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas, quedando suspendida la autorización por espacio de 1 año.
- e) La quinta vez y sucesivas será sancionado(a) con 300 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas y la revocación de la licencia.

B) Quien ocupare espacio público sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, agravado por no contar con licencia para la ocupación de dicho espacio aunque habiéndola solicitado, será sancionado:

- a) La primera vez con 60 euros.
- b) La segunda vez con 150 euros.
- c) La tercera y sucesivas veces con 300 euros .

C) Nork ere gune publikoa okupatzen baitu horretakotz premia den autoliquidazioa aurkeztu eta pagatu gabe, larriagotzen duelarik gune hori okupatzeko lizentziarik ez duelako eta eskatu ere ez duelako, ondoko zigor hau jasoko du:

- a) Lehenbiziko aldian, 150 euro.
- b) Bigarren aldian, 300 euro.
- c) Hirugarren aldian eta hurrengoetan, 600 euro.

2. - Gainerako zerga-arauen urratzeentzat, haiek kalifikatzerakoan eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Tributuen Foru-Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

## AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, zeinen atal osakide bait dira bere Eranskinean bildutako ehunekobesteen koadroa eta tarifa, behin betiko izaeraz onetsi zuen Udaltzarrak 1998(e)ko urriaren 8(e)an egindako osoko bilkuran, 1999(e)ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu zen indarrean, eta bere azken aldaketa 2017(e)ko azaroaren 2(e)an onetsi zen, 2018(e)ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela segituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

## I. ERANSKINA

### I- TARIFAK

Tarifak, ondorengo II. atalean dauden Tarifen epigrafeetako dagozkien zenbakietan ezarritako kontzeptu eta zenbatekoen arabera kalkulatu dira.

C) Quien ocupare espacio público sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, agravado por no contar ni haber solicitado la licencia para la ocupación de dicho espacio será sancionado:

- a) La primera vez con 150 euros.
- b) La segunda vez con 300 euros.
- c) La tercera y sucesivas veces con 600 euros.

2. - Para el resto de infracciones tributarias, su calificación y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

## DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, de la que son parte integrante el cuadro de porcentajes y la tarifa contenidos en su Anexo, quedó aprobada definitivamente por el Pleno de la Corporación celebrado el día 8 de octubre de 1998, entró en vigor el 1 de enero de 1999, y su última modificación aprobada el 2 de noviembre de 2017 entrará en vigor el 1 de enero de 2018 y así seguirá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

## ANEXO I

### I- TARIFAS

Las tarifas se calcularán de acuerdo con los conceptos e importes establecidos en los correspondientes números de los epígrafes de las Tarifas contenidas en el apartado II siguiente.



## II.- PROBETXAMENDU-MOTA

20.Tasa.- LUR-ZORUAREN ERABILERA  
PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA  
IBILGAILUAK SARTZEKO EDO APARKATZEKO.

## II. TIPO DE APROVECHAMIENTO

20.Tasa.- UTILIZACIÓN PRIVATIVA O  
APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO PARA  
ACCESO O APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS.

### TARIFA

**Lehen tarifa: Galtzadan tokia iraunkorki erreserbatzeagatik, metro linealeko edo zatiko eta seihilabeteko edo zatiko.**

*Tarifa primera: Por reserva permanente de espacio de calzada, por metro lineal o fracción y semestre o fracción:*

#### 1.1 Jarduera ekonomikoen gaineko zerga pagatzen duten lokaletan:

*En locales que tributen por el Impuesto Actividades Económicas:*

- |   |       |
|---|-------|
| a) 15 enplegatu edo gutxiagokoak<br><i>Con 15 o menos empleados</i> | 42,30 |
| b) 15 enplegatu baino gehiagokoak<br><i>Con más de 15 empleados</i> | 51,90 |

#### 1.2 Bestelako lokaletan

*En otros locales*

- |   |        |
|---|--------|
| a) 5 plaza baino gutxiagokoak<br><i>Con menos de 5 plazas</i> | 0,00   |
| b) 5etik 30era plazakoak<br><i>Entre 5 y 30 plazas</i>        | 50,30  |
| c) 31tik 50era plazakoak<br><i>Entre 31 y 50 plazas</i>       | 69,85  |
| d) 51tik 150era plazakoak<br><i>Entre 51 y 150 plazas</i>     | 90,60  |
| e) 150 plaza baino gehiagokoak<br><i>Más de 150 Plazas</i>    | 108,75 |

#### 1.3 Zamalanetarako erreserbatzea, metro linealeko edo zatiko eta seihilabeteko edo zatiko

*Para carga y descarga, por metro lineal o fracción y semestre o fracción:*

- |  |       |
|--|-------|
| a) 6 ordu arte<br><i>Hasta 6 horas</i>   | 32,00 |
| b) 6 ordu baino gehiago eta 14 baino gutxiago<br><i>Más de 6 horas y menos de 14</i> | 38,45 |

### APLIKAZIO ARAUAK

1.- Tasa honen ondorioetarako, kaleak eta, orohar, Udalerrri barruko gainerantzeko leku guztiak kategoria bakar baten barruan sailkatuko dira.

### NORMAS DE APLICACIÓN

1.- A los efectos de esta Tasa, las calles, y en general, lugares del Municipio se clasifican en una categoría única.

2.- Galtzadaren Erreserba zintarria jaitsita edo kenduta dagoeneko metro linealen arabera arabera zehaztuko da espaloien sestran aldakuntzaren bat dagoen kasutan. Espaloiko zintarria jaitsirik ez balego eta espaloia kendu gabe, neurria guztira kasu bakoitzeko lokal edo orubera sartzeko hutsunearen luzera erabilgarria izango da.

Hirugarren tarifarako, erreserba aldi baterako okupatutako aparkaleku-unitateek zehaztuko dute, aparkalekuak lerroan nahiz zeharka jartzekoak izan.

3.- Aparkalekuen erreserbak instalatzeak, kontserbatzeak, berritzeak eta kentzeak hala nola seinalizazioa jartzeak sotarazten dituen gastuak, eskatzaileen kontu eta kargurakoak izango dira.

4.- Hobariak.

4.1.- Lasarte-Oriako lokaletako jarduera-establezimenduen kasu berrietan aplikatu beharreko hobariak, honako zirkunstantzia hauek ematen direnean:

1. Lokalean, aurretik, jarduerarik egon ez izana.
2. Lokalean jarduera aldaketa bat gertatu izana.
3. Lokalean titulartasun aldaketa gertatu izana.

Emango diren hobariak hurrengoak izango dira:

\*Lehenengo urtean, %100eko hobaria.

\*Bigarren urtean, %75eko hobaria.

\*Hirugarren urtean, %25eko hobaria.

Hobari hau aplikatzeari dagokionez, jarduera ekonomikoa aldatu dela edo titular aldaketa izan dela ulertuko da, kasu hauetan:

